



2 EUSKARA IRAKASLE/NORMALIZATZAILE 2025/11/14

PROBA PRAKTIKOA: JARRAIBIDE ORRIA

Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko. Proba egiteko moduz zalanza edo zailtasunik baduzu, ez dudarik izan eta galdetu zaintzaileei ariketa hasi baino lehenago.

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

➤ Mahai gainean honako material hau izan behar duzu:

- **Sobreak:** sobre handia /sobre txikia/ paper txuri txikia.

Jarraibideak:

-Paper txurian identifikazio datuak jarri: izen-abizenak eta NAN.

-Paper txuria sobre txikian sartu, eta sobre txikia, handian. ***Sobreetan ezin da ezer idatzi; ezta markarik egin ere.***

-Azterketa bukatuta, azterketa sobre handian sartu.

- **Zigilatutako orriak.**

Zerbait falta bazaizu, eskatu.

- Proba egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NAN (nortasun agiria), ondo ikusteko lekuan. Mahai gainean, ariketak egiteko eman zaizun materiala, azterketan zehar banatuko dena eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Ezin izango da telefono mugikorrik, erloju adimendunik, pinganillorik, entzungailurik edo bestelako gailu elektronikorik konektatu. Gailu horiek ezin izango dira mahai gainean jarri, eta gordeta eta itzalita egon beharko dute.
- Proba egiteko denbora osoan zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokatzek badu, edo gainerako hautagaiei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.
- Kasu praktikoa/k edota teoriko praktikoa/k: epaimahaiak planteatzen duen/dituen kasu praktikoak ebatzi beharko dira, gaitegiarekin edota lanpostuaren eginkizunekin lotuak.
- Azterketaren iraupena hiru ordukoa **(180 minutu)** izango da.
- Puntuazioa: gehienez, 40 puntu eskuratu ahal izango dira, eta gaitzeko, gutxienez, 20 puntu atera beharko dira:
 - Zeregin eta testuinguruarekiko egokitasuna: 32 puntu, gaitzeko 16 puntu eskuratu beharko dira gutxienez.
 - Hizkuntza zuzentasun eta aberastasuna: 8 puntu, gaitzeko 4 puntu eskuratu beharko dira gutxienez.

Zereginari eta hizkuntzari lotutako bi atalak gaitzeko behar dira.

➤ **Ebaluazio-irizpideak**

- Zenbateraino erantzun zaion eskatutakoari.
- Azalpenen egokitasun- eta sakontasun-maila.
- Edukien arteko harremanen eta lotura kontzeptualen garapen-maila.
- Gogoeta pedagogikoa: ikuspegi didaktikoaren aplikagarritasuna.
- Hizkuntza zuzentasuna eta aberastasuna.

➤ **Behin-behineko emaitzak** Eibarko Udalaren iragarki taulan eta webgunean (www.eibar.eus) argitaratuko dira.

➤ **Hautaketa prozesuaren balorazioa** egin nahi izanez gero, sakatu hemen (www.eibar.eus: Sarrera/ Udala/ Udal sailak eta Zerbitzuak/ Antolaketa eta Langileria/ Hautaketa prozesuen zerbitzu karta/ Balorazio-inkesta).

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK